Espero bezala, liga hasiera zaila izan da eta bosgarren jardunaldira arte esperatu behar izan dute lehen garaipena lortzeko. Gainera, ordua arte partidurik gal-

du ez zuen Beti Onak taldea menperatu zuten. Honela, azken postua uzteaz gain, animoa hartu du Doneztebeko taldeak.

Mikel Maia, entrenatzaile sunbildarra gus-tora dago taldearekin eta aurtengo helburua, «*jokalariek elkar eza-gutu eta zelai gainean lekua ongi hartzen ikas-tea*» dela aipatu digu. Izan ere, sailkapeneko estuasunik ez dute: «*ez dugu presiorik, ezin gara jautsi eta honela, ikas-ten eta maila hartzen jo-an behar dugu*». Biz-pahiru urtetan, Prefe-rentera igotzeko modu-

ko taldea osatzen ahal dela ere uste du Maiak.

Donezteben neurriak eta arauak betetzen fut-nol zelairik ez daukate-nez, etxeko partidak Ata-rrabian jokatu behar izate-n dituzte. Beharbada horixe da gainditu be-har duten arazorik han-diena, etxekoen animo-ekin partida aunitz ira-bazten ahal baitira.

Harrobia ere indar-tua dute: infantil eta alebin mailako taldeekin batera, Lesakako txapelketan ari dira tti-kiagoak. Orain, 17 nes-ka entrenatzen hasi di-ra, heldu den urtean ze-lairatzeko asmoarekin.



ARGAZKIA: LEGARRA

DONEZTEBE F.T. NAFARROAKO ERREG. 1. MAILA

Iker IRATZOKI MIKELARENA	DONEZTEBE
Ander BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Aitor BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Jaime SEIN OSINAGA	DONEZTEBE
Aritz BALEZTENA BELARRA	DONEZTEBE
Iñigo OSTIZ ESCALADA	DONEZTEBE
Iban LOPEZ CLEMENTE	NARBARTE
Andoni BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Garikoitz URROZ GELBENZU	DONEZTEBE
Eduardo BERTIZ GRAZENA	DONEZTEBE
Javier OTERMIN LEIZA	DONEZTEBE
Ibai ORDAX OLABE	DONEZTEBE
Iban SANTESTEBAN BERGARA	DONEZTEBE
Liborio ARIZTIA ZENOZ	DONEZTEBE
Urko LOIARTE ETXEKOLONEA	ZUBIETA
Josu SANTESTEBAN GRAGIRENA	ZUBIETA
Jon Mikel ASENSIO SANTESTEBAN	ZUBIETA
Mikel TELLETXEA GONZALEZ	DONEZTEBE
Asier HERNANDORENA LIZASO	LEGASA
Mikel IBARRA IBARRA	SUNBILLA
Aritz ARRIOLA CAPDEQUI	SUNBILLA
Joseba ELIZAGOIEN ARRUTI	NARBARTE
Mikel ARRIETA GELBENZU	SUNBILLA
Eneko LARRAIOZ HERRANZ	ELTZABURU
Jon MARITXALAR ETXENIKE	SUNBILLA
Entrenatzailea: Mikel MAIA	
Laguntzaileak: Jabier JABALERA eta Juan Carlos ARREGI	



Gure Haragia
Nuestra Carne



DONEZTEBE F.T.: INFANTILAK

Jon SEIN OSINAGA	DONEZTEBE
Beñat LEIZA GARRIDO	DONEZTEBE
Daniel GARCIA OTXANDORENA	DONEZTEBE
Ander OSKOZ GAGO	DONEZTEBE
Aide TXOKARRO EZKURRA	NARBARTE
Emilio ZABALA EZKURRA	DONEZTEBE
Ander BASTERRA GARTXITORENA	DONEZTEBE
Borja ARREGI MUÑOZ	DONEZTEBE
Unai AROTZENA MARIEZKURRENA	ELGORRIAGA
Ander ANDUEZA ETXEBESTE	DONEZTEBE
Lander MINDEGIA ARES	OITZ
Xabier OLAZAR MARIEZKURRENA	ELGORRIAGA
Ibon LEIZA GARRIDO	DONEZTEBE
Iñaki SAN MIGUEL ESCUDERO	DONEZTEBE
Alberto OSTIZ GARTXITORENA	DONEZTEBE
Jon JAEN ARIZTEGI	OITZ
Joxe APEZTEGIA LOIARTE	DONEZTEBE
Emanuel GONZALVES FONSECA	DONEZTEBE
Flavio GONZALVES FONSECA	DONEZTEBE
Aimar LASTIRI ARANBARRI	SUNBILLA
Entrenatzailea: Jaime SEIN	



ARGAZKIA: ZALDUA

Donezteko infantil mailako taldeak emaitza onak lortu ditu denboraldi hasiera honetan.

DONEZTEBE F.T. (ALEBINAK A)

Fermin ESTANGA SANTESTEBAN	DONEZTEBE
Iñigo OSKOZ GAGO	DONEZTEBE
Beñat MARTIARENA ADURIZ	DONEZTEBE
Jon INDA IRIGOYEN	DONEZTEBE
Unai JUANENA IRIARTE	DONEZTEBE
Javier APEZTEGIA ITURRIA	DONEZTEBE
Unai APEZETXEA IRIBARREN	DONEZTEBE
Andoni IRATZOKI MIKELARENA	DONEZTEBE
Modesto ORDOKI ARBURUA	DONEZTEBE
Mathias URIOSTE PEREZ	DONEZTEBE
Ivan JUANENA EZKURRA	DONEZTEBE
Endika LARRALDE OLAZAR	ELGORRIAGA
Beñat ETXEKOLONEA DIEZ	ZUBIETA
Entrenatzaileak: Joseba BENDOIRO eta Fermin ETXEKOLONEA	



ARGAZKIA: ZALDUA

Doneztebeko alebinak ere ari dira lanean.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

SASKIBALOA

Berako Toki-Ona Bortziriak lau talderekin hasi du denboraldia

Kadete mailako neskena izanen da talde nagusia

Duela 7-8 urte hasi zen Beran saskibaloia lantzen Toki-Ona Bortziriak taldea. Orain dela bi denboraldira arte senior mailako mutilak izan zituen eta Nafarroako bigarren mailatik lehen mailara igotzea ere lortu zuten. Baina lehen mailan ez zen aritu talde nagusia, desagertu egin baitze. Jesus Alacid entrenatzaileak aipatu digunez, «*maila horretan aritzeko nahiko fitxarik ez zegoen, seguruak 7 jokalaririk bakarrik genituen eta hori ez da aski*». Joan den urtean aritu zen kadete mailako mutilen taldea ere desagertu da aurrean. Honela, gehien bat neska ari dira Toki-Ona Bortziriak taldeetan, 52 jokalarietatik 7 bakarrik baitira mutikoak, minibasket mixto taldean ari

direnak. Talde horretan eta bertze hiruetan (kadete, aurreinfantil eta aurreminibasket) ari diren gainerako guztiak neska dira.

Jesus Alaciden erranetan, futbolak mutil aunitz kentzen die eta neskei dagokienez, «*10 eta 16 urte artean, portzentai handi bat bada kirolik deus egiten ez duena*». Saskibaloia, kirol egiteko eta laguntzean ongi pasatzeko aukera polita dela uste du Alacidek. «*Hasieran berriti zaila izaten da, baina pixkanaka jokua hobetu eta emaitzak ailegatzaren hasten dira. Horren erakusgarri da kadete mailako nesken taldea. 11 urte zutenetik elkarrekin ari dira eta gero eta hobekiago jokatzaren dute. Segida handia izan duen taldea da*».

TOKI-ONA BORTZIRIAK: AURREINFANTIL NESKAK

Dunia ATABAL	BERA
Hegoa TELLETXEA	BERA
Alaitz AGUILAR	BERA
Adriana ZANDIO	BERA
Iratzi ERRANDONEA	BERA
Jaione ETXABE	BERA
Maddi ORDOKI	BERA
Maria BERGARA	BERA
Idoia MARTINEZ	BERA

Entrenatzailea: Roger BERGMAN
2. entrenatzailea: Mikel IRATZOKI



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Kadete mailako neska, bigarren mailan ari dira Nafarroako Kirol Jolasen barrenean.

Dena den, saskibaloitza taldeen helburu nagusia ongi pasatzea eta ariketa egitea dela aipatu digu Jesus Alacidek. Halere, kirolean hobetzen segitu nahi dute, «*talde-lana landuz taktikoki, baina baita indibidualki ere, entrenamenduetan nahiz partiduetan*». Guraso eta gazteei laguntza ere eskatu die Alacidek, «*beti behar izaten da jendea mahaian, arbitrazaren edo entrenatzeko*».

TOKI-ONA BORTZIRIAK: KADETE NESKAK

Begoña TAPIA	BERA
Clara ZIA DANBORIENA	BERA
Maialen TXANTRE IRATZOKI	BERA
Leire ZIA DANBORIENA	BERA
Elixabet IRATZOKI ZELAIETA	BERA
Leire ELTZAUDIA MENDIBERRI	BERA
Itxaro ERRANDONEA ARANIBAR	BERA
Andrea IRATZOKI GUIMON	BERA
Ainhoa ZELAIETA	BERA
Amaia IZQUIERDO	BERA
Marian MUSGO	BERA
Maria IRIGOIEN MATXIARENA	BERA

Cristina BERGMAN

Entrenatzailea: Unai ALACID ORTEGO

2. entrenatzailea: Imanol ETXEBERRIA GARCIA





TOKI-ONA BORTZIRIAK: MINIBASKET MIXTO

4. Mikel ESNAOLA	BERA
5. Naroa TOLOSA	BERA
6. Jenni ZELAIETA	BERA
7. Ibai ROS	BERA
8. Ramuntxo ALBISTUR	BERA
9. Iker SANTAMARIA	BERA
10. Iratz UDAETA	BERA
11. Julene ALTZUGUREN	BERA
12. Ana ELTZAURDIA	BERA
13. Egoitz EIZAGIRRE	BERA
14. Julen VELEZ	BERA
15. Manex ZAPIAIN	BERA
Entrenatzailea: Jesus ALAGID	



TOKI-ONA BORTZIRIAK: PREMINIBASKET NESKAK

1. Irati GARAIAR	BERA
2. Mainer FAGOAGA	BERA
3. Nahia FAGOAGA	BERA
4. Izaskun REKARTE	BERA
5. Janire DE ANDRES	BERA
6. Ane BERSAIN	BERA
7. Oihana ELTZAURDIA	BERA
8. Maitte ALTZUGUREN	BERA
9. Rakel	BERA
10. Ainhoa AGUILAR	BERA
11. Uxue ZELAIETA	BERA
12. Uxue ANTZIZAR	BERA
13. Arantxa SESE	BERA
14. Iratxe MIKELARENA	BERA
15. Haizea AYUSO	BERA
Entrenatzailea: Antonio AGUILAR	
2. entrenatzailea: Jose Mari ETXABE	



Lekarozko bi saskibaloit talde ari dira Baztanen

Infantil eta junior mailako mutikoak Nafarroako Kirol Jolasetan ari dira

KILENIUM LEKAROZ: JUNIORRAK

Ibai de BLAS	ELIZONDO
Joseba ESCALADA	ELIZONDO
Daniel SALDIAS	ELIZONDO
Daniel RUIZ	ELIZONDO
Zuhaitz AZURMENDI	ELIZONDO
Mikel ALMAKO	LEKAROZ
Jon URRUTIA	AMAIUR
Egoitz GAMIO	NARBARTE
Hasier	DONEZTEBE
Eneko	DONEZTEBE
Jon SAGASETA	DONAMARIA
Entrenatzaileak:	
Jose Agustin MINDEGIA	OITZ
Jose de BLAS	ELIZONDO

BM LEKAROZ: INFANTILAK

Joseba DE BLAS, Liher, Xabier eta Miguel (ELIZONDO); Gorka DELGADO, Aide TXOKARRO eta Unai (NARBARTE); Lander Mindegia eta Alex (DONEZTEBE) eta Unai SAGASETA (DONAMARIA)



Lekarozko junior eta infantil mailako saskibaloit taldeak Nafarroako Kirol Jolasetan ari dira.

ARGAZKIAK: TOTU ITURZAETA

ARETO-FUTBOLA

Gure Txokoako areto-futbol taldeak indartsu hasi du liga

Halere, ez dute lehen mailara igotzeko modurik, ttitulua duen entrenatzailea eskatzen dutelako

Berako Gure Txokoako areto-futbol taldeak liga hasiera bikaina egin du. Hau idazterakoan, jokaturako lau partidak nahiko erraz irabazi ditu eta sailkapenaren buruan da. Halere, Jon Altzuguren jokalariek aipatu digunez, «ezin izanen dugu lehen mailara igo, kategoria horretan, taldean titulua duen entrenatzailea izatea eskatzen dutelako eta guk ez dugu horrelakorik. Horretarako astia behar da eta guk ez dugu horretarako jenderik». Beraz,

igotzeko asmorik gabe, ahalik eta hobekien jokatzea eta ahalik eta goitien gelditzea izanen da Berako taldearen asmo nagusia.

Joan den urteko taldearekin alderatuta, aurtun Lino Zamora beterranoak taldea utzi du. Taldekide berriei dagokienez, Hondarribiako Ibon Bereau eta Legasako Jose Luis Telletxea hasi dira eta Beñat Taberna ariko da atepEAN. Azken denboraldian atea zaintzen aritu den Patxiku Artieda, berriz, jokalaria gisara arituko



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Gure Txokoako areto-futbol taldeak ongi hasi du denboraldia, jokaturako lau partidak nahiko erraz irabazi baititu.

da. Jon Altzugurenen aipatu digunez, «taldeki-de berriak ongi egokitu dira eta momentuz hagitx ongi ari gara, entrenamenduetan jende aunitz gara eta hori gero partiduetan somatzen da». Halere, denboraldia luzea da eta urte osoan konprometuz hori mantentzea da zailtasunik handiena Altzugurenen ustez: «Taldea ongi dabilenean denak gustora etortzen gara entrenatzera, baina galten hasten garenean ere taldea mantentzea izanen da helburua».

GURE TXOKOAKO ARETO-FUTBOL TALDEA

Jon ALTZUGUREN ERRANDONEA	BERA
Igor PANDO ARAMENDI	BERA
Sabino GOMEZ RODRIGUEZ	BERA
Aritz PEREZ ARTIEDA	BERA
Patxiku ARTIEDA APEZTEGIA	BERA
Jabier IRIARTE SANSIÑENA	ETXALAR
Jose Luis TAPIA IGUZKIAGIRRE	BERA
Iñaki ENDARA PETRIRENA	BERA
Aritz ARBELAITZ IGOS	BERA
Aitzol IRIZAR ARIZTIA	BERA
Ibon BERAU BARCA	HONDARRIBIA
Iñigo TELLETXEA ETXEBERRIA	IGANTZI
Iñigo ZELAIETA ALONSO	BERA
Carlos PONBAR SAINZ	BERA
Beñat TABERNA TELLETXEA	BERA
Fernando GOMEZ COLINA	BERA
Jose Luis TELLETXEA SARRATEA	LEGASA
Entrenatzailea: Jabier IRIARTE SANSIÑENA	

TOKI ONA
udal kiroldegia

Informazioa:

948 630 215

bera@urdisl.com

Urdisl Bera

SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK



LESAKA
udal igerilekua

Informazioa:

012

www.lesaka.net

UTZI PROFESIONALEN ESKU ZURE KIROL PRAKTIKA

DATUAK...

- **Martxoaz geroztik Bertiz Turismo Partzuergoko kudeatzailea da Izaskun Goñi. Sortzez iruñearra, orain Sunbillan bizi da.**
- **Abian paratu duten azken proiektuen artean, Donamariako Jauregira antolatu dituzten bisita gidatuak daude. Interesatuak Partzuergora deitu behar dute.**
- **XIV-XV. mendeko eraikin berezia da Donamariakoa, XII eta XIII. mendeko aztarnek. Bisitak Maite Urroz herritarrak gidatzen ditu.**



Izaskun GOÑI Bertizko Partzuergo Turistikoko kudeatzailea

ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

«Dorrearen aitzakiarekin eskualde osoa aurkezten diegu turistei»

Gurutze PIKABEA

Zazpi hilabeko lanaren ondotik, zein balorazio egingen zenuke?

Balorazioa oso baikorra da. Nahiz eta martxoan hasi, urtero egiten ziren proiektu guztiak antolatu eta berri batzuk ere aurrera atera ditugu: Donejakue Bidea landuz ibilaldiak, bizikleta martxa trenbidean, Landa Turismoaren Jaialdia, natura eta artisautza azoka... Bertizko parkea turistei gure kultura erakusteko leku aproposa dela ikusi dugu. Orain gastronomia jardunaldiekin ari gara. Ekonomia eta eguraldi txarragatik ez da urte ona izan turismoarentzat, baina jendea eskualdera erakartzea lortu dugu.

Sei Udalek Partzuergoa utzi ondotik sartu zinen kudeatzaile...

Dagoeneko haietatik bat itzuli da, Sunbilla eta Donamaria, Elgorriaga eta Doneztebe ere itzuliko direla uste dugu. Lesaka eta Bera ere bueltatzea gustatuko litzaiguke.

Hasieratik bultzatu duzu «eskualdeko filosofia». Horregatik Donamariako Dorrera bisita gidatuak?

Donamariakoa tokiko baliabidea da. Ez da eskualdeko ekimena, baina be-

«Euskal Herriko zaharretarikoa da, XIV-XV. mendekoa, XII eta XIII. mendeko aztarnek. Barrutik hutsa dagoen arren, eraikina bera berezia da»

rezia denez, dorrearen aitzakiarekin kanpoko jendea eskualdera erakartzea lortzen dugu. Telefonoa jo eta jo ari da egunero, eta dorreaz galde-tzean guk lau bailarak aurkezten dizkiegu: Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Urdazubi-Zugarramurdi.

Zer eskaintzen du Jauregiak?

Eraikina bera eskaintzen du, Euskal Herriko zaharretarikoa da. XIV-XV. mendekoa da, baina XII eta XIII. mendeko aztarnak ditu. Nafarroako Gobernua eraberritu zuenean, harrizharri eta egurrez-egur desegin eta berriro eraiki zuen. Barrutik hutsa dago, baina berritzeko erabili diren elementuak ikusgarriak dira: eskailera politak, zutabeak burdinezko zatiekin sendotuak... Hutsunea ikustea ere interesgarria da, eta batez ere goiko bi egurrezko solairuak. Goiko egitura be-

rezia da, baita beheko harrizkoa ere, haitz baten gainean dagoelako eraikia dorrea eta hori ikus daiteke. Bigarren solairuan tximini haundi bat dago. Elementuak ez daude museotan bezala, baina eraikina berezia da.

Zein da bere historia?

Artxiboko agiritan ez dago asko jaso eta gutxi ezagutzen da. Dena den, defentsarako dorrea izan zen. Dorretik Donejakue bidea pasatzen zen, Belatetik honat Donamariatik pasatzen zen adar bat baitzegoen. Jendea pasatzen zelako segurtasun eraikinak beharrezkoak zirelako eraiki zen. Horregatik ditu kanoi-zulo horiek, kanpokitik etor zitekenetik babesteko, eta altua izanik urrutitik zetorrena ikusteko. XVI. mendean, ordea, etxebizitza bihurtu zen. Ordurarte ez zegoen ez leihorik ez aterik, baina etxebizitza bihurtzean atea eta leiho txiki batzuk ireki ziren, eta atera sartzeko eskailerak egin.

Inguruko jendearengan ere sortu du jakin-mina?

Lehen egunetan batez ere kanpotik etorri ziren bisitariak, baina orain hemengo jendea ere hurbiltzen da.



ARGAZKIA: G. URDANPILLETA

Erdiz Bizirik-ek proposatutako herri-galdeketa aldeko apostuarekin bat eginez Arizkun, Amaiur, Oronoz-Mugairi, Irurita eta Berroetako alkateek prentsaurreakoa eskaini zuten urriaren 23an Iruritan.

ERDIZEN EGIN NAHI DEN HARROBIA EZTABAIDAN

Harrobia bai ala ez: hurbiltzen ari da zirt edo zart egiteko tenorea

Arrazoi bat edo bertze bat tarteko, Erdizen egin nahi den harrobiaren inguruan erantzun eskaka daude alde desberdinak. Enpresak interes ekonomikoak dituelako, eta Erdiz Bizirik plataforma harrobiaren kontra dagoelako. Plataformak herri galdeketa aldeko apostua egin du, eta egitasmo horrekin bat egin dute 15 herrietatik bartz herrietako alkatek. Gainerakoan artean denetariko iritziak aurkitu ditugu; gauzak ez daude hain garbi.

Gurutze PIKABEA

Erdiz Bizirik plataformaren egitasmoarekin bat egin, eta Arizkun, Amaiur, Oronoz-Mugairi, Irurita eta Berroetak herri galdeketa aldeko jarrera azaldu dute. Horretarako, ordea, Baztanen erroldatutako herritarren %10aren sinadura bildu behar da. Ondotik, herri-konsulta egiteko erabakia gehiengo osoz hartu behar du osoko bilkurak; Hori erabakitakoan Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren Departamentura joan da eskaera eta hortik Espainiako Gobernura. Baimena jaso eta hurrengo bartz egun baliodunetan, alkateari dagokio herri-konsulta deitzea.

15 ordezkari bartz hartu dute erabakia. Baina bertze gainera-

koetan, kontu honek urduritasuna sortzen du. Bartzuk ez dute galdeketa inguruan euren ikuspuntua azaltzeko asmorik. Hori da, hain zuzen, Jon Alkasena (Azpilkueta) eta Rafael Olaizola (Elizondo) alkateen kasua. Bertze bartzuek, ordea, argi dute herritarren iritzia bildu gabe ez dutela deus azalduko. Almandozko alkatea den Luis Roldanek, erraterako, herritarrei eskaintzeko proposamena, edozein dela ere, Batzar Orokorra onartzea nahi du. Bide bereetik, Santiago Ibargaraik (Erratzu), herriarentzako proposamena Batzar Orokorrean onartu ondotik bideratzea nahi du. Arraiozko Pedro Agreberrek ongi deritza herri galdeketa egiteari, baina Udalak asmoa ba bestean egingen omen du hori.

M. Jose ARIZTIA

Amaiurko alkatea



«Ez al dute merezi baztandarrek errespetua iritzia azaltzeko horrelako gai serio baten aitzinean?»

Egitasmo berri bat sortzen denean, aldekoak eta kontra-koak egoten dira, eta jakina, alde bakoitzak arrazoia duela erakusteko mila hanka ateratzen dizkio proiektuari. Bitartean, herritarren nahasmena bertzerik ez da sortzen. Horixe bera da Baztanen gertatzen ari dena Erdizko parajeen harrobia egiteko proiektuarekin. Batek arrazoia duela, bertzeak duela, politika, etorkizuna... Baina egun zenbat lagun bizi dira Baztanen abeltzaintza eta nekazaritzatik? Batzuen dako lanpostu batzuk bertzeek baino balio gehiago dute? Guretzat denak berdinak dira. Herrietako ordezkariak gara eta 8.000 lagun baino gehiagok osatzen dugu bailara. Herriak erabaki dezala eta behingoz baztandar guztien nahia agertu dadila. Ez al dute merezi baztandarrek errespetua beren iritzia azaldu dezaten horrelako gai serio baten aitzinean? Hortaz, herri galdeketa. Hori da gure proposamena, gure ustez garbiena eta demokratikoena, baztandar guztien onerako. Guk ateratzen den emaitza errespetatuko dugu eta Udalari errespetatzea eskatzen diogu eta bitartean gestio guztiak gelditzea. Baztan ez da Udalarena, Udala da Baztangoa». M.J. Ariztia (Amaiur), Patxi Larralde (Arizkun), Bittor Elizagoien (Oronoz), Peio Obregozo (Irurita) eta Arantxa Zelaia (Berroeta).

Virginia ALEMAN

Baztango alkatea



«Gure proposamenean zehatz eta garbi babesten dugu herriaren nahia bildua izan dadin».

Gure proposamenean zehatz eta garbi babesten dugu herriaren nahia bildua izan dadin. Horretarako hiru osagai beharrezkoak erabiliz: bilera informatiboak (aurka ala alde direnak saio hauetan parte hartzea gonbidatuak izanen dira), alegazio proposamenak, adituak diren enpresa baten bitartez jasoko dira eta azken batean, Baztango herri guzietan kontsulta egingo da batzarre eta bozketa pertsonala eginez herriaren erranetara biltzeko gehienek proposamena. Alegazioak argumentuz osatuak eta herriaren gehiengo nahia Magnak proiektua aurkeztu behar bezala eta tenorez bideratuko dira Batzar Nagusiaren bitartez Nafarroako Gobernura, harat zuzentzen baita, azken batean, proiektuaren erabakia. Gure ardura da aurka direnak nola proiektua onerako diotenen izan dezaten informazioa, babesa eta eskubidea. Ezin dugu ere ahaztu, proiektua aurkeztuz geroz bere bidea egin behar duela, legeak eragiten duen arabera. Guk azkenean ezetz erraten ahal dugu, baina enpresak ingurumen txostena aldeko baldin badu helegitea aurkeztu dezake.

Jaione IRISARRI

Erdiz Bizirik



«Herriak hitza izatea eta erabakitzea eskatzen dugu. Horretarako garbiena herri galdeketa da»

Alkate batzuk presionatuta ikusten dira, batetik Udala, bertetik. Erdiz Bizirik plataforma, bertetik jendea... Batzuk beldurra dute eta gure ustez garbiena batzarrak egitea da, herriaren iritzia biltzea. Badakigu alkate batzuk horren alde daudela, bertzeak kontra, bertzeek ez dakitela zer egin... Hemen dik alkate horiek animatu nahi ditugu, herri galdeketa bultzatu dezaten. Hala, galdeketa alde manifestazioa eginen da azaroaren 10ean, 16:30ean. Aurreko manifestazioa oso jendetsua izan zen eta nahiko genuke hau ere izatea, Udalak eta kasu honetan Batzar Nagusiak jendearen artean zer nolako ardura dagoen ikusi dezan. Guk herriak hitza izatea eta erabakitzea eskatzen dugu, eta horretarako garbiena herri galdeketa da. Badakigu jendea proiektu honen alde ere badagoela, baina gure ustez gehiengo ezezkoa da, eta hori plazaratzeko manifestazioa egitea pentsatu dugu. Udalak herri galdeketa inguruan ez du deus jakin nahi eta bertze proposamenak ditu, alegazio moduan aurkeztuz herritarren hitza. Uste dugu horrek ez duela indar berdina. Herri galdeketa egiteko Baztanen erroldatuak dau den 18 urtetik goitiko jendearen %10en sinadura behar da. Gero Udalak eta Batzar Nagusiak bere gain hartzea eskatzen dugu.

José Antonio YEREGI

Magna



«Ulertzen dugu gauzak ongi egiteak denbora eskatzen duela, eta malguak izaten ari gara»

Baztango Udalean proiektua azaldu dugu, eta badaki nolakoa den proiektua eta nolakoa izanen den. Dokumentazioa bera, ordea, guk ez dugu Baztango udal txean utzi, legeak erraten duena egin nahi dugulako eta horrela, lehendabiziko gauza paperak Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentura eramatea izanen da. Nafarroako Gobernu tekninari adituak dira proiektua ongi dagoen edo ez dagoen adierazteko eskumena eta ardura dutenak, eta ez Baztango Batzar Orokorra. Guk Baztango Batzar Orokorrari eskatzen dioguna zera da, eta hori izan zen urriaren 1eko bilkuran atera zena: proiektua aurkeztuz gero, —eta horrek ez du esan nahi emanez gero— eta ingurumenaren eta industriaren aldetik, ekonomikoki eta sozialki ekarriko lituzkeen aberastasunak azaldukoan, interesgarria den ala ez den adieraztea, hau da, bere iritzia agertzea. Oraindik ez dugu Nafarroako Gobernuan aurkeztu proiektua, baina proiektuaren nondik norakoak ezagutzen dituzte Udalean. Magnesitas Navarrak ulertzen du, gauzak ongi egiteko, modu batera egin behar direla, eta hainbat pauso egin behar direla. Batzar Orokorrak zeozer egiteko denbora behar duela pentsatzen dugu. Alde horretatik, enpresen malguak izaten ari gara.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarrea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Beintza-Labaiengo aretze-jatearen inguruan

Aurtengoan, beste urte batez, arrakasta handikoa izandu da aretze-jatea. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu egun hau antolatzen lanean ibili diren guztiei. Izan ere, batzuk lanean pasatzen dute egun guztia, goizgoizetik hasita, besta ongi ateratzeko. Afaria ez ezik, herri kirol eta artisaunen erakustaldia ikusgarriak izan ziren eta Zubietako joaldunak ere hor ibili ziren herria alaitzen. Azken urte hauetan ohitura bihurtu den egun hau galdu ez dadin, segi ezazue horretan, herriak eskertzen dizue eta!

Herritar batzuk

Alcoko akordioa sinatu duen LABeko ordezkariaren inguruan

LAB-metalgintzan, Manufacturas Alcon sinatu den akordioa dela eta, idatzi honen bitartez gure ez adostasuna adierazi nahi dugu. Horregatik diogu, ez dugula zer ikusirik LABeko ordezkari eta Komiteko kide den horrek eman duen sinadura horrekin, ez baitugu inolako ezagutzarik izan, eta sindikatuaren aholku eta bai-

menik gabe jokatu du.

LAB-metalgintzan, adostu den akordioaren emaitza ikusita, langile murrizketa eta soldaten jaitziera, LABen jokatze modutik urrun eta kontra datozela ikusten dugu. LABen ekintza sindikala beste bat da, beti ere, langileen lan baldintzak hobetuz joatea.

Kontutan eduki behar da, lantegiak ez duela Alcoren etorkizuna zein izango den adieraziko lukeen plan industrialik mahai-gaineratu.

LAB sindikatua

Baztango Batasunaren prentsa oharra

Gan den astean Batasuneko hainbat kidek egindako batzarraren ondorio bezala, hau adierazi nahi diogu Baztango herriari.

• Nahiz eta polizia, epaile eta bertze indar errepresibo espainolak gure kideak detenitu eta kartzeleratu, Batasuneko kideok ziurtatzen dugu ez dutela gure lan politikoa baldintzatuko, Baztan eta Euskal Herriaren alde lanean segitzeko konpromiso firme eta sendoa baitugu.

• Nahiz eta estatu espainola eta frantsesak bake proposamenei errepresioarekin erantzun, guk iniziatiba politikoa gehiagorekin erantzunen dugu gure antolamendua indartuz eta

erasoei erantzunez, gure herria defendatuz.

• Nahiz eta Udaleko NaBaik eta UPNk 676 baztandarren aukera politikoa isilarazi eta indargabetu nahi, Batasuneko kideok 676 horien eta baztandar guzaien ahotza udaletxean aditu dadila, lanean segitzeko erabakia hartu dugu, bereziki orain guzaien ahotan den Erdizeko aferan. Gure herriaren alde antolakuntza eta borroka.

Baztango Batasuna

Goizuetako Gazte Asanbladaren oharra

Goizuetako Gazte Asanbladak aurten 16. urteurrena ospatzen duen honetan, aukera ona ikusi du beraien beharrik eta gustuak aurrrera eramateaz gain, herritarren nahiak ere zein diren jakiteko eta kontutan hartzeko. Horregatik, edonork edozein proposamen, kezka, iritzi, kritika egin nahi izanez gero, iradokizunen kutxa jarri du Amaia Kafetegian. Modu honetara, gaztetxetik atera eta herritar guztion parte-hartzea bultzatu nahi dugu. Beraz bada-kizue! Hartu papera eta boligrafoa, buruari bueltatxo pare bat eman eta aprobetxatu aukera hau! Bide batez, aipatu, gazteok asteburuetarako autobus publikoaren be-

harra ikusten genuela herrian eta horregatik Udalari eskaera hori egin genion, asteburu edo larunbatetan behintzat garraioa jartzea. Batez ere, alkohola edan eta autoa hartzea saiestearren, parrandan lasaia ibiltzeko... Baina horretarako zuen laguntza behar dugu: Zein asteburutan jarriko zenukete autobusa Hernanira? Aztertu Hernanira joateko ohitura duzuen egunen bat, egun bereziren bat edo sagardo garai-ko egun zehatzen bat eta lehen aipatu bezala, eman diezaiogun erabilera iradokizunen kutxari. Garraio publikoa herri guztiarentzako zerbitzu bat da, beraz, guztiok parte har dezagun! Orain ez daukazu aitzakiarik! Besterik gabe, zure ekarpena luzatuko duzulakoan edo Gazte Asanbladako ekintzen batean elkar ikusiko dugulakoan, ea guztion partehartzearekin beste hainbeste urte lanean jarraitzen dugun!!!

Goizuetako Gazte Asanblada

Energia sobera Nafarroan

Hainbat atzerapenen ondotik (sakela-betetzailen interesak direla medio, seguraski) ematen du aurten martxan dagoela Eraikuntzako Kodigo Tekniko Berria. Arautegi horrek erakuntza berriko etxebizitza eta zaharberrituta-

• IRAKURLEAK MINTZO •

koetan, guttineko eguzki indar erabilera agintzen du ura berotzeko.

Azken boladan gainera, maiz leitu eta aditu dut inguruan (Xorroxin, Ttipi Ttapa...), eta kanpotik ikusita ematen du gauza aitzinera doala, alegia, poliki-poliki energia berriztagarrik ari direla sartzen. Gezurra! Ez behinik behin partikularren artean.

Nik neronek bai paratu dut ura berotzeko sistema, baino gutti gehiago paratuko dire gure inguru honetan. Zergatik? Norbaitek ez badaki edo, azalduko dut.

Lehen aipatu bezala, Kodigo Berri horrek ura berotzeko eguzki indarra erabiltzera behartzen du, beti ere, babes historiko-artistikoa arautzen duen erakunde batek ez badu bertzerik agintzen.

Orduan, gure agintari astakilo, ignorante eta entxfufatu horietako batzuk, hain zuzen, Ondare Historikoaren Zerbitzukoek, zera erran dute: kontraerana dagoela Kodigo Berriko arautegiaren eta Nafarroako pirineotako arantako herri eta eskualde prepirenaikoetako babilio historiko ta arkitektoni-

koen babestearen artean. To! Ze jakintsuak dituen trajedun jauntxoak!

Zein ondare historiko-arkitektoniko eta zer arraio? Ez adarrarik jo mesedez, hori aitzakia da, ez benetako arrazoia!

Ez al zen aspaldi urratu babes hori, gaur egun modan dagon eraikuntza moduarekin? Gure inguruko mendi magal guzietan barra-barra ari dira agertzen, sekulako desmonte eta eskoilerak eginenez, palaziotxo dotoreak, batzuk haundigoak, bertzeak tikiagoak, zein baino zein horteragoa. Horrek zerikustekorik du gure ondare eta «*memoria visual colectiva*»rekin, ebazpen horretan dioen bezala?

Eta kotxez betetako karririk ez al dute inguru historiko-arkitektoniko hori hausten? Eta planifikaziorik gabe eta sakelak betetzeko eginiko urbanizazioek?

Ondorioz, Nafarroko iparralde guzian ez da beharrezkoa eguzki indarra paratzea ura berotzeko, segi lasai gasa eta gasoila erretzen, eta eguzki instalazioa ez paratzearekin aurrezten den di-

rukin (lau bat mila euro, itxia kostako den 300.000rendako, aunitz baira) erosi *todo-terreno* haundigoa edo plasmazko telebista erraldoia, energia aurrezteak esperatu dezake...

Gainera, zenbait herritan, horrekin aski ez dela, debekatu egin dute eguzki sistema paratzea, hor dago! *Navarra siempre palante!*

Orduan zer kristo? Bada aldaketa klimatikorik eta energia aurreztu beharrik? Rajoyek dion bezala, ez! Nafarroan behinik behin ez! Nahiz eta estatuko kontaminazio mediaren gainetik egon.

Saiatzten naiz ez haserretzen, ez du merezi, irri eginen dut, zirku batean paiasoak ikusiko bazu bezala, kar kar kar!

Bakoitzak bere itzala...

Joseba Urrotz Urrotz

Berako Aralarren salaketa

Aralarrek Berako alkateak aholkularia kon-

tratatu izana, eta gordeka egitea, salatzen du.

ANVko alkate Josu Irazokik, gainerako alderdi politikoei informaziorik eman gabe, ezkutuan, eta aurrekontuetan aurreikusi gabe, aholkulari pertsonala kontratatu duela jakin du Berako Aralarrek. Horren aitzinean ondoko gogoeta plazaratu nahi du Berako Aralarrek:

1. Alkateak aholkulari pertsonal baten beharrik ez duela uste dugu. Udalaren aholkulari legala Idazkaria da. Horrez gain, hirigintza gaietarako aholkularia dago eta baita auzitegietan defentsa egiten denerako abokatua ere.

2. Guztiz salagarria iruditzen zaigu aholkulari honen kontratazioa ezkutuan egin izana, inolako publizitaterik gabe, gainerako alderdiekin kontrastatu gabe, eta larriena, informatu ere egin gabe, eta gordeka.

3. Aholkulari honen urteko kostua Udalarentzat 5.684 eurokoa da. Udal aurrekontuak ez du horretarako partidarik eta ez da partidarik gaitu horretarako. Aitzineko legegintzaldian alkateordeak Udaleko hautetsi liberatu

bakarrak urteko 23.452 euroko soldata gordina paratu zuenean (urteko KPlaren igoera izan duena urtez urte), neurritz kanpoko kritikak eginez eta diru publikoa xahutzea leporatuta gogor egin zuten gure kontra orain alkateztan daudenek, %60 baino gehiagoko igoera izan duenean bere soldata, eta inorekin kontrastatu gabe aholkulari pertsonal bat izendatu duenean.

4. Alkateak edo honen ordekoak liberatuta egon behar duela defenditu dugu beti, soldata duin bat behar duela, eta horregatik defenditu genuen alkateak egun duen soldata. Baina diru publikoarekin garden jokatzeari eta gainerako taldeei zor zaigun begirunea eta errespetua ezinbertzekoak direla uste dugu. Eta gainerakoei debaldeko kritikak egin baino, gogoeta egin dezatela eskatzen diegu ANVko kideei, eta erabakiarekin atzera egin dezala.

Berako Aralar

LANTEGIAK

Urriaren 6az geroztik %25 guttiago kobratzen dute Alcon

Egun horretan zuzendaritzak eta langileek akordioa sinatu zuten

ttipi-ttapa

Berako Manufacturas Alco enpresaren egoeraren harira, zurrumuruak ugariak eta jendearen jakin-mina handia izan da azken hilabete hauetan, batez ere, zuzendaritzak irailaren 3an Enplegua Erregulatzeko Espediente (ERE) aurkeztu zuenetik. Prentsan eta hedabideetan lantegiaren inguruko informazioa era egokian ez eman izana ere kritikatu dute langileek. 200 orriko txostenak bi zati zituen, eta azken zati horretan hiru neurri aurreikusten ziren: langileen soldatak %25 murriztea, 30 langile kaleiratzea eta 40 bat langileri aldi baterako kontratatua etetea (langa-bezira joan denbora batez, baina berriro lantegira bueltatzea). Neurri horien gainean, negoziatzen aritu dira hilabete batez zuzendaritzarekin eta azkenean urriaren 6an sinatu zuten hitzarmena. Horren



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

Gaur egun 60 bat langile enplegatzen ditu Berako Manufacturas Alcoc

arabera, hauek dira indarrean sartu diren neurriak: batetik urriaren 6az geroztik langileen soldatak %25 jaitsi dira (soldaten inguruko negoziazioa duela urte bat hasi zen); bigarrenik, hemendik abuztua bitarte zazpi langile aitzinetik erretiratzea aurreikusituta dute; azkenik, hirugarren neurrian, 38-40 langile aldi baterako enplegu-etena izanen dutela erraten da. Orain oporretan daude gehienak, baina urriaren 26tik

abenduaren 10era enplegu-etena izanen dute. Halere, lanik gabe daudenean, lanean baleude bezala kobratuko dute, horretarako gehigarria enpresak ordainduko baitie.

Langilego kopuruan ere gaizki-ulertuak izan dira. Alcoc, afera hau hasi aitzinetik, 77 langile zituen; gaur egun, berriz, 60 bat lagun ditu.

LABEN ERANTZUNA

Zabaldukoaren il-dotik, LABek ageriko utzi

du bere «desadostasuna». Alco lantegiko langile batzordean ordezkaria duen sindikatu bakarra LAB da, gainerako ordezkariak ez dira sindikatu etakoak. Hala, LABeko ordezkari eta langile batzordeko kide denak emandako sinadurarekin zer ikusirik ez duela nabarmendu dute LABen, horren inguruan «inolako» ezagutzarik izan ez dutelako, eta «sindikatuaren aholku eta baimetik gabe jokatu duelako».

FLASH

Teknologia berriei buruzko ikastaroak Leitzan eta Lesakan

Cederna-Garalur Elkartek berriro ere *Hurbildu IK Tatar@* programa paratu du abian emakumeentzako eta adinekoentzako. Kasu honetan, Leitzan eta Lesakan egingen dira, Amazabal institutuan eta Cedernak Alkaiagan duen egoitzan, hurrenez hurren. Guztiak ere dohainik izanen dira. Leitzan bi ikastaro eskainiko dira eta Lesakan, berriz, bakarra. Lesakan eta Leitzan bietan emanen direnak tailer tematikoak izanen dira eta azaroaren 26tik 30era egingen dira. Interesatuak 11 tailer izanen dituzte aukeran eta izena ematean horietatik hiru aukeratu beharko dituzte. Hiru hautatuenak aste horretan emanen dira. Lesakan emakumezkoei bideratuak 09:30etatik 11:30era izanen dira, eta adinekoentzakoak, berriz, 11:30etik 13:30era. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko 948 625122 telefonora deitu beharko dute Bortziririk aldekoek. Leitzan, berriz, arratsaldean eskainiko dira eskolak: adinekoentzako 16:30etik 18:30era eta emakumeentzako 18:30etik 20:30era. Zailtzaririk izanez gero edo izena emateko, 639900318 telefonora deitu behar da.

Horrez gain, Leitzan bertzelako eskolak emanen dira azaroaren 12tik 23ra. Informatikaren hastapenaren inguruan izanen dira: 16:30etik 18:30era adinekoentzako eta 18:30etik 20:30era emakumezkoentzako.

saroha
gastategia dindalea

25.000 batzuek 25 bato
948 63 08 99
www.saroha.net

ZUBIONDO
Jatetxea

Agardotegia jatetxea

Alasta karrika
948 625 475
BERA NAFARROA

LEGARRA

ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

BERA

FLASH

Kafe Antzerki Zikloaren IX. edizioa egingen da azaroaren 2tik 16ra

Ikuskizunak Ikuilu, Errekalde eta Kondaira ostatueta izanen dira

Amaia eta Ainhoa

Berako Euskara Batzordeak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin, IX. Kafe Antzerki Zikloa antolatu du. Azaroaren 2an hasi eta 16ra bitartean luzatuko da. Lehenbiziko egunean, Giltxaro taldeak *Honolulu, leku bat* antzezlan eskainiko du Ikuilu ostatuan 22:00etan. Azaroaren 9an, Txirene taldearen *Ogijik etzun semia* izeneko antzezlan ikusteko aukera izanen da Errekalde ostatuan 22:00etan. Azkeneko ikuskizuna Jon Urrazak irailaren 16an eskainiko du Kondaira ostatuan 22:00etan, *Ez haiekin... ezta haiek gabe ere* izeneko.

Toki Ona Institutuak 'Konpromisoen Gutunak'-ekin bat egin du

Bigarren hezkuntzako Nafarroako beste bederatzita zentroekin batera, Toki Ona Institutuak kalitatezko kudeaketa hobetzeko ekintzak zehazten dituzten Konpromisoen Gutunak bere gain hartuko ditu. Tresna honek helburuak



ARGAZKIA: TOKI ONA INSTITUTUAK UTZITAKOIA

Toki Ona kalitatezko kudeaketa hobetzeko egitasmoan barneratu da.

zabaltzen laguntzen du, ikasleagoa eta beraien familien fidelotasuna hobetzen du, datu neurgarriak eskaintzen ditu eta etengabeko hobekuntzari jarraitzea behartzen du. Gutunak helburuak adieraziz hasten dira, heziketa eskaintza, planak, proiektuak, oinarrizko zerbitzuak eta instalazioak definituz. Ondotik, erronka edo konpromisoak zerrendatzen dira, bakoitzaren ekintza edo indikadoreekin, zerbitzuen erabilera arduratsua definitzen duten eskubide eta betebeharrak zehazten dira, baita zentroa eta parte-hartze kanalen komunikazio me-

kanismoak ere. Kalitate konpromisoa espezifikokoak ere badaude: el-karrizketa pertsonalen eskariak hartzea, iradokizun eta erreklamazioen kudeaketa eraginkorra, orientazio eta tutoretza pertsonalizatua, pertsonen formazio integrala eskaintzea...

Haur eta gazteentzako ipuin lehiaketa

laz bezala, Berako Kultur Batzordeak eta Berako Liburutegiak Bortzirietako haur eta gazteentzako ipuin lehiaketa antolatu dute. Oraingoan ere, irudimena, originaltasuna eta hizkuntzaren abe-

rastasuna baloratuko du epai-mahaiak. Lehiaketa lau mailatan sailkatuko da adinaren arabera: A maila (LHko 3. eta 4. maila), B maila (LHko 5. eta 6. maila), C maila (DBHko 1. eta 2. maila) eta D maila (DBHko 3. eta 4. maila). *Denboraren makinan sartu zara...* izanen da gaia eta ipuinak guttienez orri batekoak eta gehienez lau orrikoak izanen dira. Ipuinak azaroaren 30a baino lehen Berako liburutegira edo Kultur Etxera bidali behar dira. Sari banaketa, berriz, abenduaren 14an egingen da 18:00etan, Berako Liburutegian.

Singapurreko abesbatza igande honetan

Berako Abesbatzak, Kultur Batzordearen laguntzarekin Singapurreko SYC Ensemble Singers abesbatza gonbidatu du azaroaren 4an 20:00etan Kultur Etxean abesteko. Lehen Singapurreko Youth Choir bezala ezaguna, herrialdeko abesbatzarik zaharrenetakoa da eta atzerriko jaialdietan parte hartu zuen lehena.

Euskararen inguruko hitzaldiak

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bi hitzaldi antolatu ditu azarorako. Lehendabizikoa azaroaren 6an izanen da eta Lionel Joly Euskararen bilakaera Bortzirietan gaiaren inguruan arituko da Kultur Etxean 19:30ean. Hurrengo azaroaren 8an izanen da eta toki eta ordu berean Mario Zapatak Euskararen normalizazioa eta kultura antiztasuna gaiak jorratuko du.

Haurrentzako txontxongilo ikuskizuna

Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin, Labiaga ikastolako 3 eta 10 urte bitarteko ikuskizuna antolatu du. Heldu den azaroaren 11n 17:30ean Txontxongilo taldea Kultur Etxean izanen da eta *Ku-ku, aitonen erloju* izeneko ikuskizuna eskainiko du.

ZJ
Zalain
jaketxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

ANSONEA
Ostatua - Jabetxea

Eguneroko menua eta
asteburutar menu bereziak

Terraza estalia eta Ziberkafea

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

LESAKA

Ikastola inguruko lurren salmentari buruz deus ez zekiela dio Eak

«Proiektuaren berri PNVren hauteskunde programan izan genuen»

Aitor AROTZENA

Lesakako Eusko Alkartasunak, Juan Fermin Mitxelena EAJ-PNVko alkate ohiak Cornelia Lecuona Fundazioako lurren salmenta kontratuaz komunikabide ezberdinetan egindako adierazpenei buruz zenbait zehaztapen egin zituen urriaren 23an, Alkartetxean egindako prentsaurrekoan. Bertan izan ziren Koldo Erkizia alkatea, Seberiano Txoperena EAKo batzordeko kidea eta Juan Carlos Ayala, EAKo zinegotzia eta aitzineko legealdian hirigintza batzordeko burua zena. Hain zuzen, lehengo alkateak adierazitakoaren kontra, Ayalak eta Eusko Alkartasunak Fundazioaren lurren salmenta kontratuaren eta proiektuaren inongo berririk ez zeukatela garbi utzi nahi izan zuen Seberiano Txoperenak. «Gainerako udal korporazioak bezala, Ayalak Fundazioaren terrenuen inguruan egindako balorazio ekonomikoaren jakituz, balorazio hau batzorde informatibotik pasatu zelako. Denbora berean, Juan Fermin Mitxelena eta ikastolaren artean



ARGAZKIAK: AITOR A.

Seme-alaben sexualitate eta afektibitateari buruz Urriko lau astelehenez, gurasoei zuzendutako *Gure seme-alaben sexualitatea eta afektibitatea* hitzalde-tailerrak izan dira Antoiuko erabilera anitzeko aretoan, Irain eskolako Guraso Elkarteak antolatu eta Marta Aris-tuk gidatuta. Gaia aski interesgarria izanik, pena bakarra zuten partehartzaileek, «*guraso gutti eta denak amak*» izan direla hitzaldietan.

izandako bilera batzuen berri zeukan, bilera hauen inguruan akta bazezgoelako».

Seberiano Txoperenaren ustez, «*afera honetan gauza aunitz nahi dira, baina EAK karrikan zegoen informazioa bakarrik zuen eta kontratuen berri, PNVren hauteskunde-programa hartzerakoan izan genuen*».

Juan Fermin Mitxelena egindako adierazpenetan, arazoa

onez on moldatzen saiatuko zela aipatu zuen, baina Cornelia Lecuona Fundazioa kudeatzen duen Patronatuko kide bezala, hori zail ikusten du Koldo Erkizia. «*Izan ere, hiru hilabete pasa dira eta oraindik gauzak zeuden bezala daude, ez da deus berririk*». Gauzak honela, bertze bideak jorratu beharko direla jakinarazi zuen Erkizia eta epaitegien bidea ere ez zuen baztertu.

San Fermin erretiratuen elkarteak bere eguna ospatuko du azaroaren 4an

A.A.

San Fermin erretiratuen elkarteak bere eguna ospatuko du igande honetan, azaroaren 4ean. Goizean, aurten hildako bazkideen omenez meza izanen dute eta gero bazkaria Irubiden. Bazkalondoa, dantzan hasi baino lehen, aurten jokatu dituzten txapelketa ez-

FLASH

Onbordiko tunela itxia

N-121A errepideko lanak direla eta trenbide zaharra, Onbordiko tunelatik Igantzi aldera doan tartean, datozen sei hilabetetan itxia egonen dela jakinarazi du Udalak. Bide horretatik ibiltzea galarazi ere egin du, bando bidez.


Su-egur loteen eskaerak

Etixerako su-egur loterik nahi duenak 012 telefonora deitu behar du abenduaren 15a baino lehen. Deitzerakoan, nor eskatzen duen eta harremanetarako telefonoa jakinarazi behar-ko dira.

Javier Igoa garaile Beasaingo margo lehiaketan

Javier Igoa margolariak Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak antolatutako margo lehiaketa irabazi du. 47 margolarik parte hartu zuten lehiaketa.

berdinen sari banaketa egingen dute. Carmelo Etxarte lehendakariak aipatu digunez, besta honekin akautuko dira aurtengo ekitaldiak. Izan ere, ez dute feria egunean bazkaririk egingen, egoitza ondoko obrak direla eta, lekurik gabe gelditu direlako. «*Leku faltaren arazoa abudo moldatzea espero dugu*».



ETXALAR

348 uso harrapatu zituzten usazaleek Usategietako Igandean

Arrakasta handiz egin zen Patata Tortilla Txapelketa urriaren 13an

Joseba eta Nerea

Denboraldiko pasarik handiena izan zen urriaren 21ean, Usategietako Igandean. Eguraldi ederra eta ipar haizea lagun, 29 dozena uso harrapatu zituzten sareetan. Jende andana ere hurbildu zen Iharmendiko gainera besta eguna aprobetxatzera. Ez zen inor damutu, paraje ederraz gozatzear gain, usazaleak lanean ikusteko aukera izan zelako —eta guttitan izaten da horrelako aukerarik—. Arratsaldean herrira jau-tsi zen besta, haurrentzako jolas eta tailerrekin. Magia ikuskizuna, musika, eta jan-edateko aukera izan zen frontoian, Altxatak paratutako ostatuan. Urteroko zozketan, hiru sari zozketatu ziren. Lehendabizika (12 uso bizirik) Sunbillako Mikel Bertizentzat izan zen. Bigarrena (Herriko Ostatuan bi lagunentzako afaria) eman gabe gelditu zen, 1961 zenbakiarekin. Eta



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Patata Tortilla txapelketako irabazle guztiak elkarrekin. Aurten 10 sari eman ziren: lehenbiziko hiru tortilla hobereinei, tortilla txarrenari, eta janzkerarik onenari, kategoria bakoitzean. Saria zen guttien inporta zuena.

hirugarrena (kanpin denda) Landaburuko Bordako Aitor Danborienak eraman zuen. Antolatzaileak gustura gelditu ziren egunak izandako martxarekin.

PATATA TORTILLA TXAPELKETA ARRAKASTATSUA

20 taldek parte hartu zuten III. Patata Tortilla txapelketan, 13 talde helduetan eta zazpi

gazteetan. Arratsalde partetik giro polita izan zen frontoi bazterrean, eta partehartzaileen ingurura kurioso parras-ta hurbildu zen, zer gisako tortillak egiten zituzten ikustera. Epaile lanetan Anttonio, Pakita eta Julen aritu ziren. Eurek erabaki zuten tortillarik hoberenak eta txarrenak zein izan ziren. Nesken Txaranga batek bazterrak alaitu

zituken afaldu aitzinetik. Afaria frontoian bertan egin zen, txapelketako tortillekin.

Izaskun eta Lurdes arpanlariak

Nafarroako txapel-dun izan ondotik, Euskal Herriko Nesken Arpanlari Txapelketa jokatuko zuten Basaurin Pilarika Egunean. Ez zuten hagitz saio ona egin,

eta laugarren postua eskuratu zuten, txapeldunek baino 24 segundu gehiagoko denborarekin. «Orain atsedena hartuko dugu, heldu den irailera arte ez dagoelako txapelketarik. Uda-berri aldera hasiko gara berri entrenatzen» aipatu digute.

Aldaketak Guraso Elkartean

Urriaren 15ean Landagain Eskolako Guraso Elkarteko bilera egin zen. Hainbat aldaketen artean, Ana Mari Indaburu eta Arantxa Perugorria ateri egin ziren eta Nuria Baiona, Maria Jesus Perugorria eta Mireia Martinez sartu. Horrela, kide bat gehiago izanen du elkarteak, lan gehiago izanen dutelako. Orain arte Altxata Kultur Elkarteak eramanen zituen Andre Mari Dantza Taldearen eta Pilota Eskolaren ardurara, baina orain Guraso Elkartearen esku utzi dute.

ARANTZA

Asteazkenetik larunbatera kultur egunak egingen dira

Maiatzeko uholdeek eragindako kalte guziak konpontzeko dirulaguntza lortu du Udalak

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean aipatu bezala, hilabetea akautzeko eta azarorari ongi etorria egiteko udazkeneko kultur ekitaldiak antolatu ditu Euskarara Batzordeak, Udalaren laguntzarekin. Al-di honetan ere kulturaldiaren egitaraua oroitaraziko dizuegu.

Urriak 31, asteazkena
17:00etan *Zine eman-kizuna* eskolan.

Azaroak 1, ortzeguna
Baseritarren Eguna.

Azaroak 2, ortziral
17:00etan *karaoke*alñigo Etxepareren eskutik, eskolan.

21:00etan *bertso afaria* Ekaitza elkartean, Fredi eta Xabier Paiairekin.

Azaroak 3, larunbata
20:00etan *fanfarrea*
00:00etan *kontzertua*
DEUS taldearekin eta ondotik *dantzaldia* LAKET taldearekin.

Urriruko udal informazioa

Duela bi aste, urriroari dagozkion Udaleko berriekin osatutako txostena jaso genuen herriko etxe guztietan. Txosten informatiboan lau hilabete hauetan aurreko legegaldian zeuden egitasmoak aitzinera eramaten eta proiektu berriak prestatzen ari direla ere azaltzen da aurkezpenean. Tarte honetan zenbait puntu aipatuko dizkizuegu eta oraingo honetan azaltzen ez direnak hurrengoan idatziko ditugu.

MAIATZEKO UHOLDEAK

Uholdeek kalte handiak eragin zituzten eskualdeko zenbait herritan, batzuetan bertzeetan baino gehiago. Hala, Nafarroako Gobernutik kaltetutako bideetan moldaketa lanak egiteko gastu osoa ordaintzeko dirulaguntza lortu du Udalak. Lan



ARGAZKIA: WWW.ARANTZA.NET

Udazkeneko koloreak nabarmen dira tenorea hala dugulako.

hauek abendua baino lehen egin behar dira:

1. Beraskundik Txertadi aldeko pistan zola berdindu eta ur-bideak egin.

2. Ixenbordako luberritik Entzelkara doan pistan zola berdindu eta ur-bideak egin.

3. Tuanekobordatik Amekurrunera doan pistan berdindu, ur-bideak egin eta bi hodi paratu.

4. Zerradotik Itsaszelaierako pista berdindu eta 200 metro hormigonatu Zerradoko borda ondoan.

5. Zerradotik Unanua alderako pista berdindu eta ur-bideak egin.

6. Ekaitzako pistan erreko tubo batzuk garbitu.

7. Azkilarreko Entzelka parajeetan pareta edo eskoilera egin erortza gelditzeko.


Udan, berriz, Iturritatik Txolberro aldera doan bidean eskoilera bat egin zen; eta Eguzkialdeko Gastelenekobordako bidegurutzean, azpikaldeko eskoilera ere egin zen.

BULATSIKIKO PISTA

Bulatsikiko pistaren gaiak herritarren artean nahasmena sortu du. Aitzineko Udalak obra egin zuen herritarrekin adostu gabe, eta bi urteren buruan, obra finantzatzeko familia bakoitzari 100 euro eskatu zizkion. Batzuek ordaindu zuten eta bertzeek ez. Hala, joan den abuztuan herritar batzuek dei anoniemoak jaso zituzten etxetan pista hau ordaindu ez zutelako, beuren piztiak erreko zituztela mehatxu eginez. Gertakaria zinez larria da.

Udalaren egoera ekonomikoa txarra da eta hondar urte hauetan eginiko zenbait lanek defizita areagotu dute. Egoera hau moldatzeko nahiarekin, Udalak obra honetarako familien ekarpena boluntarioa izatea proposatu du. Horrela, bere garaian ordaindu ez zutenak, orain 100 euroak ordaintzea, hala nahi izanez gero; edo lehenago ordaindu zutenak dirua itzultzea eskatzea Udalarri, nahi badu. Beraz, aukerak hortxe daude. Aurrekoan ez bezala, oraingoan ez da jendaurrean zerrendarik paratuko.

Ur depositua, auzoetako aurtengo eta hurrengo ikasturteko lanak eta abar hurrengo aldean luze eta zabal emanen ditugu.

 Toailak-Manteleriak-Oheko maindireak Eskolako haurren mantalak etab... bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue peña bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzen ditugu.
Etxeri Plz. Berrio 4ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

ERREKALDE
PLATER KONBARTUAK 
PINTURAK **Ongi pasa bestaki!**
BOKATIK
TFNOR: 948 630 25A BERA


PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanois diseño
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054


Ituzia
LABORANTZIA & SERBITZUA
HIDROEREINTZA
HIDROSEMBRA
FERMIN BAIKOTZORRA
LARRALDEA
948 607 514
948 607 514

BORTZIRIAK - MALERREKA

Turismoarekin lotutako proiektuak inauguratu dituzte Lesaka, Etxalar eta Urrotzen

Gobernuak 100.000 euro bideratu ditu lan hauetara

ttipi-ttapa

Bidasoaldean turismoarekin lotuak dauden hiru proiektu inauguratu zituzten urriaren 17an Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentuko ordezkariak Urrotz, Etxalar eta Lesakan. Nafarroako Gobernuak guztira 100.392,36 euroko inbertsioa egin du.

Leurtzako urtegian ezinduei ingururako sarbide errazteko egin da lana. Hala, beheitiko urtegi doan bidea moldatu da, zola hobetu, baranda jarri eta bidaxka konpondu. Lan horietarako, Urrozko Udalak 25.048 euroko dirulaguntza hartu du, 39.000 euroko aurrekontuaren %64,22a.

Lesakako Agiñako gune megalitikoan hainbat eraikinek iraun dute mendez mende: trikuharriak eta tumuloak, harrespilak, borobilean ezarritako menhir edo iruinariak... Erromatarren inbasioak baino lehen, Agiñako kaxkoan harresi bat ezarri zen, egurrezko etxebizitzak eta burdina egiteko erabiltzen zituzten lekuak babesteko. Bidasoaldean topatu den indouropearren aztarna bakarra da Agiñakoa. Orain, berriz, mendi bizikletaz edo oinez egiteko zenbait bidaxka moldatu dira bertan. Lehena zirkularra da, eta burdina oinarri hartuta, Lesaka, Bidasoako trenbidea eta Agiñako his-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Gobernuko eta eskualdeko udal eta entitateetako ordezkariak urriaren 17an.

toriaurreko estazioa lotzen ditu. Bigarren bidaxka Agiña inguruan dago eta historiaurreko aztarnak ikusteko aukera eskaintzen du. Paggolleta eta Burnaizti artean, ibilbidea Iruña eta Bordele lotzen zituen erromatarren bidearekin gurutzatzen da lau aldiz. Hirugarrena lauda eta lasaiagoa, kilometro eta erdi ingurukoa. Halere, historiaurreko aztarnak eta Aranzadi Zientzia elkartearen eskariz, Vallet eta Jorge Oteizak Aita Donostiari egindako es-

kultura eta arkitektura lanak ikus daitezke. Lan hauetarako 44.958 euroko laguntza jaso du Lesakako Udalak, 70.000 euroko aurrekontuaren %64,22a.

Etxalarko eskaintza turistikoa sendotzeko, azkenik, bi bidaxka tematiko eta kultural egokitu dira, Zentinelako bidaxka arkeologikoa eta Usategietakoa. Lehenbizikoa Zentinelan inguruan dago, iratze eta larre artean, eta oinez, bizikletaz nahiz zaldiz egin daiteke. Lakain auzotik eta Zugarramurdira do-

an bidetik du sarbidea eta marra txuri eta urdinez seinalizatua dago. Usategietako ibilbideak marka txuri eta gorriak ditu, GR-11 rekin bat egiten baitu. Lizarietako kaxkoan eta Usategietan jatetxeko aparkalekutik hasi daiteke eta usategien azpiegiturak ikus daitezke. Dena den, ehiza garaian, urria eta azaroan, ibilbidearen erabilera mugatuko da. Proiektu hau egiteko 30.385 euroko laguntza jaso du Udalak, 47.309 euroko aurrekontuaren %64,22a.

bortzirudi
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KAMUSETAK - BIDERAK - TIKETEROAK (Nahi duzun neurri - ibilbidearekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORISTAK, TITULU BEZETZAN - PLANOAK
ENKILADENAZOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PIPERTEGIA - BULIGO MATERIALA
DISEÑU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - FOTOTRUKAK - IMPRENTA

Etxeora, 26. Eukaleko Behea D - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

BERA Zere inguruak klase guzietako insektuz (samarra, zinearra, armiarma, kukuxu...) eta erratoi zurgutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 587 • Zalar, 42 A • BERA

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Goya

Altsate, 5 - Tel: 948 630 083

ERROTAZAR
harategia

Bertako produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

Javier Manterola
Tehnika instalatzailea
Iturgintza - gasa
kalafakzioa

Tfnoa: 629449602-BERA

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA

Tel: 948 637 814
Beheko Plaza, 10 - LESAKA

BORTZIRIAK

Bortzirietan euskara indartzeko jardunaldiak datozen asteetan

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimena da, azaroaren 6tik 17ra bitarte



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

ttipi-ttapa

Euskara: atzo, gaur eta bihar izenburupean lau hitzaldi eta gogoeta saio bat antolatu ditu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak.

Hilaren 6an emanen zaio hasiera ekimenari. Lionel Joly Soziolin-guistika Kluster-eko kideak *Euskararen bila-kaera Bortzirietan* hitzaldia emanen du. Bortzirietan euskararen inguruko datuak aztertu

ditu eta horien inguruko irakurketa egingen du. Berako Kultur Etxean izanen da, 19:30ean.

Mario Zapatak hartuko dio txanda, *euskararen normalizazioa eta kultura aniztasunari* buruz solastuz. Hitzaldia hilaren 8an izanen da, 19:30ean, hau ere Berako. Helburua kultura aniztasunaren inguruko hausnarketa egin eta euskaltzaleen inplikazioa lortzea izanen da.

Aurtengoa iazko jardunaldien segida izanen da.

Euskara berreskuratzeko langintza: hitza eta ekintza. Horixe izanen da Dabid Anautek eskainiko duen hitzaldia, euskara berreskuratzeko egin beharrekoari bideratua. Hilaren 13an izanen da Lesakako Udalak Antoiu karrikan duen aretoan, 19:30ean.

Laugarren eta azken hitzaldia Juan Carlos

Etxegeienek eskainiko du, *gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* izenburupean. Euskarak historian izan duen bilakarari buruz arituko da, eta hau ere Antoiu karrikan izanen da, azaroaren 15ean, 19:30ean.

Hitzaldiak interesa duen edozeinentzat irekiak dira. Halere, man-

komunitateak dei berezia egin die euskara bartzordeetan edo era batera edo bertera, euskalgintzan ari diren eragile eta euskaltzaleei. Azken gogoeta saioa Etxalarko Kultur Etxean egingen da hilaren 17an. Gai nagusia Bortzirietako euskalgintza indartzeko bideak eztabaidatzea izanen da.

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

2007an eta 2008an laguntza, prestakuntza eta ikerketa modalitateetako garapenerako lankidetzako teknikorako proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deia egiten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 127zk., 2007/10/10 222/2007* Foru Agindua, irailaren 21ekoa, *Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gailetako kontseilariak emana.*

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/127/Anuncio-17/

2007an garapenerako lankidetzarako urte batzuetako programak egiteko dirulaguntzetarako deia egiten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 127zk., 2007/10/10 224/2007* Foru Agindua, irailaren 21ekoa, *Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gailetako kontseilariak emana.*

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/127/Anuncio-19/

Nafarroako udal eta kontzejuei 2006. urtean egin diren errepideko hiriarteko bidaiari-garraio kolektibo zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 127zk., 2007/10/10 241/2006* Ebazpena, irailaren 26koa, *Garraio zuzendari nagusiak emana.*

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/127/Anuncio-21/

2007an eta 2008an garapenerako hezkuntzarako proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deia egiten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 127zk., 2007/10/10 223/2007* Foru Agindua, irailaren 21ekoa, *Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gailetako kontseilariak emana.*

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/127/Anuncio-18/

Atarrabiako Udaleko Amalur Haur Eskolaren zerbitzuan hezitzaile euskaldun izateko hiru lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egiten da.

Non argitaratua: *NAO 125zk., 2007/10/05* http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/125/Anuncio-19/

Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren trazabilitateari laguntzak emateko arauak ezarri eta 2007. urteko deialdia onesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 124zk., 2007/10/03 348/2007* Foru Agindua, irailaren 20koa, *Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak emana.*

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/124/Anuncio-4/

Epe amaiera: *2007/11/27*

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

SUNBILLA

Antzakaitz Kultur Taldeak antolatuta egun ederra pasatu zuten herriko haurrek BKZn

Zaharrenak Arraioztik Bertizera jautsi ziren rafting eginez

Jaione OTXANDORENA

Urriaren 13an ataraldia antolatu zen herriko haurrentzat, 3tik 12 urte bitartekoentzat, hain zuzen. Goizean zaharrenak bakarrik joan ziren autobusez BKZk NARBARTEN duen aterpera, eta bertan beharrezkoak ziren jantzi eta materialak hartu ondoren, berriro ere autobusez, Arraiozera joan ziren. Arraioztik Bertizko natur parkeraino raftingean jautsi ziren, taldeka banatuta gidari baten laguntzaz. Eguerdian bertan berriro ere NARBARTEN aterpera joan ziren eta bertan bazkaldu zuten. Arratsaldean, gazteenak elkartu zitzaizkien eta Bertiz Abentura Parkera joan ziren guztiak tirolina egitera. Arratsaldeko zaz-

piak aldera berriro herrira itzuli ziren, guztiak pozik abenturaz betetako eguna pasa egin baitzuten elkarrekin.

Ezbeharra

Urriaren 23an urtero urriruan egin ohi zuen bezala, Jose Manuel Zugarramurdi Xako Paretzaharrera joan zen uso ehizara. Goiza bertan pasa zuen, uso ehizarako giro askorik ez bazegoen ere, lagunekin hizketan. Eguerdian partean etxera zetorrela, bere autoa bidetik atera eta amildegi batetik erori zen. Arratsaldean etxekoak bere falta somatzen hasi ziren eta bere sakeleko telefonoan inork erantzuten ez zuenez, berarekin zeuden ehiztari lagunei deitu zieten eta iluna-



barrean, herriko jende talde handi bat atera zen bere billa. 23:00ak aldera, bi herritarrek harrrapatu zuten bere autoa eta bera barruan hilda. Xakoherrian aunitz inplikatu zen gizona genuen: duela urte batzuk herriko alkate izan zen, baita ehizako juntako presidentea ere. Gaur egun herriko abesbatzako partaidea zen.

Eskolako jangelako prestakuntzak

Eskolan jangela bat martxan jartzeko beharra somatu zuten zenbait gurasok, eta azkenean, Udalarekin hartu emanean hasiak dira lanean. Sukaldaria bilatzeko deia ere egin da.



ARGAZKIAK: J. OTXANDORENA

Eskolako gaztetxoak ederki ibili ziren BKZrekin.

Izen ematea udaletxean egin beharko da hilaren 16a baino lehen.

Sukaldaritza ikastaroak

Bertizko partzuergoak, Udalak eta Ulibeltzak elkarteak antolatuta, sukaldaritza ikastaroak egiten ari dira herrian. Urrian hasi eta

abendurarte luzatuko dira. Ozegunero Ulibeltzak Elkartearen izaten dira. Irakasleak Haizea Luzuriaga eta Lourdes Montoia dira, Donamariako Bentako sukaldariak. Guztia ondo joaten bada, partzuergoaren esanetan, urtariletik aitzinera berriro ikastaroa martxan jarriko da.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA 32. kanalean ikusten da orain Donezteben eta inguruko herrietan

Antena partikularra dutenek telebista bersintonizatu beharko dute eta, pazientzia pixka batekin, telebista aparatua bilatuko ditu etxeko antenatik hartzen diren frekuentziak.

Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, nahitaezkoa izanen da anplifikadore berria jartzea. Horretarako, antena instalatzaileari deitu beharko zaio.

Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 948 63 54 58 telefonora.

MALERREKA

Aurtizko San Martin bestak azaroaren 8tik 11ra

Larunbat arratsaldean aizkora apostuak izanen dira

Ortzeguna 8 Besten hasiera

16:30ean txupinazoa. Segidan herriko txistulariekin kalejira. **17:00etan** haur jokoa, eta ondotik txokolatada. **20:30ean** tortila patata lehiaketa Aurtizko pilotalekuan. Ondotik berendu-afaria egiten da tortilekin eta sari banaketa lehenengo hiru tortila hoberenentzat. **Afaldon** mus txapelketa Aurtizko elkartearen eta jarraian triki-pandero-joare-bereto-poteoa.

Ortzirala 9 Herritarren Eguna

Goizean argisoinuak herriko txistulariekin.

12:00etan Aurtizko gazteen arteko herri kirol desafioa. **14:00etan** herri bazkaria Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariekin eta Joxe Angel akordeoilariarekin. **00:00etatik aurrera** REYES DE JALISKO mariatxiak, eta jarraian JOXE ANGEL akordeoilariarekin dantzaldia.

Larunbata 10 San Martin bezpera

Goizean argisoinuak herriko txistulariekin. **8:30ean** pilota partidak Burriñene I eta Burriñene II, Mixeltene eta Errandeneren aurka. **17:00etan** trikitixa jaialdia. **18:30ean** aizkora apostua: A. Erasun-



ARTXIBOA

Joan den urtean bezala, aurten ere jokoekin gozatzeko aukera izanen dute ttikieneak, eta ondotik txokolatada. Behean iazko trikitixa jaialdiko partaideak ageri dira. Besta hauetan ere euren saioa eskainiko dute, larunbatean.

A. Mindegia/ A. Olanor. Castro. Miel Mindegia kanako egurra moztzen eta Kenari Erasun bi 35 ontzakoa moztzen. **00:30etik aitzinera** gaurpasa IZOTZ taldearekin.

Igandea 11 San Martin Eguna

Goizean argisoinuak herriko txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia San Martin Donearen ohorez. Ondotik

dantzariak eta gero luntxa herriko elkartearen. **Atsaldetan** txintxon lehiaketa Aurtizko elkartearen. **Ondotik** dantzaldia JOXE ANJELekin beste akabila emateko.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

m
bentamiguel
denda, jatebrea eta ostaturia

Gingil zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - © 948 631 209

MALERREKA

Maiatzeko uholdeen kalteak moldatzeko laguntza jasoko dute Ezkurra, Eratsun eta Saldiasek

15.371, 19.661 eta 13.956 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren

ttipi-ttapa

Maiatzeko uholdeek eragindako azpiegitura kalteak moldatzeko dirulaguntza jasoko dute Ezkurra, Eratsun eta Saldiasko Udalek. Nafarroako Gobernuo Toki Administrazioak emandako laguntzak gastuak bere osotasunean ordainduko ditu.

Ezkurrako Udalak 15.371 euroko dirulaguntza hartuko du, Olaldetik Oletara doan bidea eta Baztanea etxeraren ondoko pareta moldatzeko. **Eratsungo**

Udalak 19.661 euro jasoko ditu, Iruñarriko errepikagailua eta bidea moldatzeko, alde bate-tik, eta Asurako bidea konpontzeko, bertetik. **Saldiasko** Udalak, azkenik, 13.956 euroko laguntza hartuko du, Urrutiña eta errotako bideak moldatzeko.

Auritz arrazako txapelketan Indar Anaiak jaun eta jabe

Altsasun jokaturako Auritz edo Burgete arrazako V. Lehiaketa Mor-



ARGAZKIA: JOANA ESTANGA

'Urriruko besta' arrakastatsua Beintza-Labaienen

Bertze urte batez giro ederrean joan zen urriaren 6an Beintza-Labaiengo Itturondo elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako *Urriruko besta*. Inguruko artisauen lanen erakusketa, herritarren arteko arpan apostua eta aizkora apostua, Zubietako joaldunen joan-etorriak... Zer ikusi eta zerekin gozatu izan zuten herritarrek eta bertara hurbildutakoek. Ilunabarreko aretze-jateak ere jende andana erakarri zuten. Afalondoa nahiko luzatu zitzaizen zenbaitzuei Jalisko Band taldearekin gaupasa izan baitzen, eta ondotik ere bestak segitu baitzuen. Hurrengo urteko bestaren esperan gelditu beharko orain.

fologikoa, eta Legasako Indart Anaiak ez zuten hutsik egin aurten ere. Nafarroako 25 us-tiategitako 95 buruk parte hartu zuen, sari nagusia Indart Anaien *Salvaje* zaldiak jaso zuen aurten hirugarren aldiz segidan. Horrez gain,

bertze hainbat sari jaso zituzten legasarrekin. 11 sari ezberdin banatu ziren, eta horietako hamarretan lehen saria eskuratu zuten Indartarrek; baita bigarren postuak ere zazpi alditan, eta hirugarren postua aldi bakarrean. Lehen saria es-

kuratu ez zuen kasu bakarra bi eta hiru urteko zaldi gazteen mailakoa izan zen, bigarrena lortu zuen.

Bertzalde, Barlome Etxaide zigarra bosgarren sailkatu zen umeak dituzten 3-7 urteko behorren mailan.

Pinturas  Pikabea
Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guziak

BONDEX urpintura • Esmalteak eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

BEINTZAKO
OSTATUA

☎ 948 45 00 14

www.beintzak.com
www.ostatuak.com

11711 BEINTZA LABAÏEN

ORBELA

Pitti

eskabazioak

Tel: 616 513 491



Mendiaketa plaza, 34 ZUBIETA

GOIZUETA

Boluntarioak behar dira larrialdietarako anbulantziaren talderako

Iruñetik datorren laguntza galtzeko arriskua egon liteke

Esteban AROTZENA

Herritar guztiek estimu handian edukiko dute seguru aski suhiltzaileen parkeko larrialdietarako anbulantziak betetzen duen lana. Ba orain, beste urrats bat egiteko garaia ailegatu dela dirudi, zerbitzua behar bezala betetzeko-tan boluntario berriak behar baititu hortaz arduratzen den taldeak.

Hainbat arrazoi pertsonalen ondorioz, pixkanaka-pixkanaka murrizten joan omen da bolondresen kopurua gaur egungo hamar lagunera jaitsi den arte. Erraz ulertu litekeen bezala, urteko egun eta ordu guztiak betetzeko ez du ematen jende kopuru horrek, eta ondorioz, egun batzuk zerbitzurik gabe gelditzen dira. Hutsarte horietan larrialdiren bat gertatuz gero,

Donostiatik edo Leitza-tik ekarri behar izaten da anbulantzia.

Ibon Elizegi bolondresak esan zigenez, beste ondorio larri samar bat ere ekar omen lezake zerbitzua bere osotasunean ezin estali honek: indarrean dagoen araudiaren arabera, 8 urtetik aldatu behar dira anbulantziak, eta gureak hurrengo martxoan betetzen dituenek berria ekarri behar da ordurako. Horretarako Nafarroako Gobernua eta Udalaren arteko hitzarmena behar da, eta bolondres faltarengatik zerbitzua ezin bete honek, Iruña finantziarioa ukatzera eraman lezakenaren beldur da Ibon. Honek, jakina, anbulantziarik gabe utziko luke herria.

Egoera honen aurrean aipaturiko bolon-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zaldi martxa herrian eta Zaharren Eguneko sarituak Ikusmin handia sortu zuen urriaren 20ko eguerdian herriratu zen zaldi martxak —goiko argazkian—. Herriko kaleetan paseotxo emanakoan, bazkaltzera joan ziren: zaldiak “Klaudion belasora” eta zaldunak Umore Ona Elkartera. Beheko argazkian, berriz, Zaharren Eguneko mus eta truk txapelketetako saridunak ageri dira.

dres taldeko kide izateko prest dauden herritarrek Angelekin edo Ibonekin hitz egin beharko dute. Dena den, deialdi publikoa ere luzatuko da ondorengo asteetan.

Azaro kulturala

Ekitaldiz bete dute aurtien ere azaroa Kultur Taldeak eta Udalak. Kalendarioan hurbilen dauzkagunak aipatuz esan, larunbat honetan, hilak 3, Jaione Ola-

zabal aresoarraren kantaldia izanen dela Gantarban, 20:00etatik aurrera. Hurrengo asteburuan, berriz, hilak 11 igandea, Heriz magoaren emanaldia izanen da 17:30etik aurrera.

arkilanaak

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETREBETZEN PROIEKTUAK
URBANIZAZIÓ PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFORMAZIÓ: 3D

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TLF 948 581 931

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

Kontaketa ondaregia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordua eskatu

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetis - Aina - Zizareak - Larri azaleko alergis - Buruko mina
Oinen iseria - Prostatas, etab...

IKUSMENAREN BERRISKURATZEA:
Miopia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi louseak kataraktak

GIHARRE ARAZOAK:
Bixkartzea - Artritis - Erreuma - Artrosia - Lanbolgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

ARESO

Eskolako ikasleek bildutako gaztain eta onddoekin erakusketa egin dute

Onddo eta gibelurdin jangarriekin egindako tortillak dastatu zituzten

Juana Mari SAIZAR

Udazkena eta natur zientziaren arloan, ikasgai praktiko egitea bururatu zitzaizen Aresoko irakasleei, eta horretarako mendialdera irteera antolatu zuten. Bi talde egin zituzten ikasleekin: txikieneek gaztainak bildu zituzten eta zaharragoek, berriz, onddo mordoa, 46 klase desberdin. Alajaina!

Erakusketa jarri zuten eskolan eta guraso guztiak gonbidatu zituzten ikustera. Geroago jangarriak ziren onddoekin eta gibelurdinarekin tortilla egin eta dastatzera ere guztiak gonbidatu zituzten. Ogia ere bertan egin zuten Aresoko irinarekin.

Teknologia berriak

Teknologi berriak kanpainaren barnean, Nafarroako Gobernuak kamioi ibiltari bat bidali zuen herriz herri lau ordenagailuarekin; tartean gure herria bisitatu zuen. Helburu nagusia adinekoak hurbiltzea izan da eta teknologia berriei beldurra kentzea. Nonbait, gerora ikastaroak eskaini nahi dira eta horretarako bidea nolabait egina eduki nahi zuten antolatzaileek. Parte hartu duten herritarrek zalantzak argitu eta kuriosidadeak asetzen joan direla aipatu digute, baina gazteak eta umeak izan dira gehien erabili dutenak.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Goian ikasleek egindako erakusketa ageri da. Ikasleek 46 mota onddo aurkitu zituzten. Behean, berriz, teknologien kamioia ageri da. Arrakasta izan zuen.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
Tafalla, 13 - IRUÑEA - 948 230 634

albornozak
mantelak
edredoi nordikoak
kuxinak
ohe estalkiak
maindireak
toailak
edredoi-azal nordikoak

edredoi-azal nordikoak eta edredoietan espezilistak



LEITZA

Herriko etxebizitza beharrak aztertze-ko kanpaina abiatu du Udalak

Ikerketa soziologo batek eginen du eta bildutako datuekin txostena kaleratuko du

Joseba URKIOLA

Leitzako Udalak urriaren 18an hasi eta azaroaren 10a bitarte, etxebizitzaren inguruko galdetegi kanpaina bat garatuko du. Helburua Leitzan bizi nahi duten orok zer-nolako beharrak dauzkaten argitzea da. Udalaren esanetan, herria txikia izan arren, behar desberdinak daude. Beraz, ondo legoke herritarrek eduki ditzaketan kezak eta nahiak zein motatakoak diren jakitea.

Proiektuaren arduraduna soziologo bat izanen da. Interesatuak berarekin bilduko dira dagokion inkesta burutzeko. Aipatu, egoera desberdin bakoitzarentzat, galdetegi ezberdina egituratu dutela, lanean ari den baten edota ikasketetan murgilduta dagoen herritarren egoerak ez baitira inolaz ere alderagarriak. Behin galdetegiak egiteko epea amaituta, soziologoak txostena egingo du eta orduan jakingo dugu, Leitzak etxebizitzari buruzko nolako beharrak dituen.

Azterketan parte hartzeko 012 zenbakira deitu beharko da eta bertan ikerlariarekin biltze-



ARTXIBOA

Gustura ibili dira Aurrera Perra Taldekoak

Lehenengo urteko emaitza ona errepikatu nahian, Aurrera Perra Taldekoak zaldiak lagun urriaren 20an mugaz-mugako beste abentura bat egin zuten. Aurtengoan, Goizuetarantz bideratu zuten egun-pasa, eta horretarako nahiko bidaia entretenigarria antolatu zuten. Leku aipagarrien artean, Aizan, Mendibilgo lepoa, Galbano eta Arrimiako Lepotik igaro ziren.

ko hitzordua emanen da. Programa 16 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago.

Jesusen Bihotza Santa Kruzen

Udalak bere laikotasun izaera argudiatuz, Jesusen Bihotzaren irudia udaletxetik kentzea erabaki zuenean, kez-

ka handiak sortu ziren herriko fededunen artean, ez baitzegoen oso garbi zein izango zen irudiaren leku berria.

Hipotesien artean, irudia babestuko zuen elkarte edo sozietatea sortzearen planteamendua bolo-bolo egon zen. Dena den, urriaren hasieran elizganbaran eginiko bilera baten os-

tean, Jabier Azpiroz Mendialdeko gotzain-bikarioak hala gomendatuta, Jesusen Bihotza Santa Kruzera eramatea erabaki zen, urtean zehar fededun asko baitira ermita honetara ibilbidetxoan egiten dutenak.

Txertoa hartzeko kanpaina zabalik

2007-2008 ikasturteko

gripearen aurkako kanpaina zabalik dago. Hasiera urriaren 15ean eman zitzaion eta azaroaren 31 bitarte eskuragarri izanen du edozeinek. Urtero moduan txertoa hartu ahal izateko Leitzako Osasun Etxera joan beharko da.

Nieve amateurrik onena

Orbea taldeko txirrindularia izango den Mikel Nieve leitzarra 2006-2007 denboraldiko estatu espainiarreko amateurrik onenaren izendapena jaso du. Aipamen hau Espainiako Txirrindulari Federazioak amateur mailan kudeatzen duen programa batetik atera ohi da. Urte osoan estatu mailan egindako lasterketen errepasso zehatza egiten da eta onenei puntuazio jakin bat ematen zaie. Lasterketa guztiek ez dute puntuazio bera, itzuli batean hirugarren gelditzeak edota egun bateko saio batean txapela janzteak kopuru desberdina eman baitiezaiokero kirolariari. Edozein kasutan, aurtengoan puntu gehien poltsikoratu dituen Nieve izan da.

Ark arkitektura bulegoa

Erakuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza

Celia Lana Ranz
Huarte Gotzal 7 - 31880 Leizta
645008478 tel

J. RAMOS
zolak akutzilatuta eta
barnizatzen dittut

Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

HERDIBO
ETXEBIZITZA
EDONTEGIZ
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maixen eta Véronique
SARA

ESKUALDEA

Turista eta eskualdeko jendearentzako sukaldaritza ikastaroak

Abenduaren 20a bitarte luzatuko dira eta Sunbillan egingen dira

ttipi-ttapa

Negu garaian, eguraldi kaskarragoarekin, turistei aukera berriak eskaintzeko asmoz, sukaldaritza ikastaroa antolatu eta abian paratu dute Bertizko Partzuergo Turistikoak, Sunbillako Udalak eta Ulibeltza elkarteak eta Donamariako Benta jatetxeak. Ekimenaren helburua hemengo jendeare-

kin hartu-emanean, turistei gure gastronomiaren produktuak ezagutarazi eta dastatzeko aukera ematea da.

Hala, Donamariako Bentako sukaldaria eta Ttipi-ttapako Eltze berea saioko kolaboratzailea den Haizea Luzuriaga eta Lourdes Montoia bere lankidea irakasle lanetan ari dira, Sunbillako Ulibeltza



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Haizea Luzuriaga eta Lourdes Montoia dira ikastaroko irakasleak.

elkartean. Ikastaroak urriaren 18an hasi ziren, eta ortzegunero izaten dira, 17:30etik 19:30era. Azken eskola, abenduaren 20an izanen da.

Ikastaroa, ordea, ez da turistei begira baka-

rik antolatua. Interesa duen eskualdeko edozeinek parte hartu dezake, eta Bertizko Partzuergo Turistikoan izena emanaz gero, zortzi eguneko ikastaroan parte hartuko du. Turistek,

berri, egun bateko ikastaroan edo tarteka parte hartzeko aukera dute. Ikasi nahi duenak Bertizko Partzuergo Turistikoan eman beharko du izena ikastaro eguna baino lehen.

Gure ardura: INGURUMENA

Gure helburua: AURRERAPEN IRAUNKORRA

Gure Indarra: ZEHAZTASUN PROFESIONALA

Guztion aurrerapen eta ongizatean lagundu nahi dugu. MAGNAk balioa ematen dio naturak eman digun mineral bati eta BAZTANI aberastasuna ekarriko dio.

MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.



Magnesita de Artesiaga
RIQUEZA | MEDIOAMBIENTE | FUTURO

BAZTAN

Erdiz Bizirik-ek herri galdeketaren aldeko manifestazioa deitu du azaroaren 10erako

16:30ean abiatuko da Elizondoko plazatik

ttipi-ttapa

Erdiz Bizirik plataformak herri galdeketa-aren egitasmoari bultzada emateko, manifestazioarako deialdia egin du azaroaren 10erako. 16:30ean paratu dute hitzordua eta Elizondoko plazatik abiatuko da.

Alkatearen «jarrera irregularra» salatu dute udaleko goi teknikariek

Irailaren 20an Baztango Udaleko idazkariak eta kontu-hartzaileak alkatetzan «behin baino gehiagotan legez kanpoko jokaera eta jarrera irregularrak» antzeman zituztela salatu zuten erregistroan idatzi baten bidez. Alkateak hainbat obra eta lanen esleipena legezko prozedura segitu gabe egin zuela kritikatu zuten idatzian.

«JUSTIFIKATUAK DAUDE»

Virginia Aleman alkateak, ordea, lehiaketara atera gabeko esleipen horiek «justifikazioa» dutela adierazi du, konponketak eta obrak «lehenbailehen amaitzekoak» zirelako. Gaineratu duenez, «administrazioan ari garen guztiok badakigu legezko administrazio prozedura jarraitzea dela egokiena, baina kasu honetan obrak premiazkoak ziren». Gisa berean, «ikasturtea hasi baino lehen eskolentako konponketek bukatuak egotea nahi genuen, eta hala ere, zenbaitetan ez dugu lortu hala izatea, Erratzun edo Arizkunen, erraterako. Pilotalekuetako obrak ere premiazkoak ziren, eta maiatzeko uholdeen kalteei buruz, zererranikez». Hauetako batzuk orain obratan daudela erran du alka-



ARTXIBOA

Kirikotearen Eguna izanen da igande honetan

Igande honetan, hilak 4, Arizkungo Gamioxarrea etxean Kirikoketa egunaren edizio berria egingen da Jo ala Jok antolatuta. Hala, Gamioxarrea inguruan eta herrian garatuko den egitaraua prestatu dute. 10:00etan hasiera emanen diote egunari, sagardoa egiteko prozesua hasiko da: sagar bilketa eta garraiatzea, sagar-jotzea, patsa-estutzea eta gainerako lanak. 10:30etik aitzinera, herrien barnat txistulariak, erraldoiak, Sasternea etxean pintura erakusketa, artisauak, marrakuluak... izanen dira. Aldi berean Gamioxarreen hiru atal bereizi dituzte: behetian, kupeletagian, barra paratuko da eta pintxoak zerbitzatu eta pantalla haundi baten bidez sagardogileen lana segitu ahal izanen da; lehenbiziko pisuan dolarea eta hirugarren toki batean erakusketa izanen da, eta Nafarroako sagardoa dastatzeko aukera. Haurtzaindegi zerbitzua ere izanen da. 14:00etan bazkaria egingen da Iñigo Izagirre, Jon Barberena eta Jon Elizegi bertsoariekin. 17:00etan txalaparta emanaldia izanen da, mota desberdinetako txalaparta hotsak adituko dira: Baigorrikoak, Donapaleukoak, Ziburukoak, Gallartakoak, Errotxapeakoak... Ilunabarrean dantza herrikoiak izanen da; 19:00etan bokatak eta akitzeko kontzertua Kalapite taldearekin.

teak, eta lehenbailehen bukatu behar direla.

Baztango UPNk, bere aldetik, alkatearen jarrera «eskandalosoa, kezagarria eta onartezina» dela erran du.

Saioan bi mendizale galduak

Bi mendizale iruindar Saioa mendian galdu ziren urriaren 20an. Artesiagatik abiatuz, Saioa-ira igo ziren, baina ilun-

du zuenean galdu eta larrialdi telefonoratu deitu behar izan zuten. Azkenean suhiltzaileekin komunikazioa galdu gabe, euren kabuz Aritzuherrira ailegatu ziren.

Maderas GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerioak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Izagaondika errep. 1. km
URDAZUBI

MENDI
ostatia
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
Tel: 948 453 060
N-121-B, 66 km
T. AMAUR

SOULE
hileta artea
Tlf: 948 453 444
Mug: 929 633 583
ARIZUN

BAZTAN

Baztan-Bidasoako Gazte Eguna eginen da azaroaren 10ean Elizondon

Bortzirietatik eta Malerrekatik joateko autobusa antolatu dute

ttipi-ttapa

Aitzineko urtean Lesakan egindako bestak izan zuen arrakasta ikusirik, aurten bigarrenez Baztan-Bidasoako Gazte Eguna eginen da Elizondon, azaroaren 10ean. Ekimen honen helburua eskualdeko gazteak elkartzea da, eta antolatzaileek adierazi digutenez, aldi berean, «gazteok antolatu eta gure eskubideak borrokatzeko beharra eskualdean zabaltzea».

Hala, egun osoko egitaraua prestatu dute. 10:00etan hasiera ekitaldia eginen da; 11:00etan Erdiz-Biziriklaren inguruko hitzaldia; eguerdian bazkari herrikoa trikitixa eta euskal kantuekin Gaztetxe parean. Arratsaldean,

berri, Erdizen aldeko manifestazioa eginen da. 19:00etan kalejira fanfarre eta bertsolariekin. Egunari segida emateko, 22:00etan Sixty Sexers, Ufestuek eta Kaskezur taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxe parean.

Bazkarirako txartelak 12 eurotan salgai paratu dituzte Beran, Lesakan, Arantzan, Sunbillan, Donezteben, Elizondon eta Erratzun. Herri herri joan-etorria egiteko jai busa egonen dela ere iragarri dute antolatzaileek. 08:30ean abiatuko da Beratik, eta Lesaka, Igantzi, Arantza, Etxalar, Sunbilla eta Doneztebetik pasatu ondok ailegatuko da Elizondora. Itzulera ordua 07:00etan izanen da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Amaiurko monolitoaren 25. urteurrena

25. urteurrena ospatzeko (1982-2007), urriaren 12a ospakizun eguna izan zuten amaiurtarrek. Herriko plazan bildutakoak Gaztelu mendirats abiatu ziren, txistu eta atabal soinuaren laguntzarekin. 12:00etan txalaparta eta txistua soinuarekin, Iban Dufurrena dantzari erratzuarrak aureskua dantzatu zuen eta M^a Eugenia Urrutiak lore sorta utzi zuen momumentoaren oinetan. Amaiurko Gaztelu taldearen kantuak aditu ziren eta Jesus Urrutiak sarrera egin ondoren Amaiurko alkate Miguel Jose Ariztiak hartu zuen hitza. Alkateak Nafarroaren defendatzaileak gogoan, goratu diren bi momumentoen historia gogoratu zuen (lehenengoa 1932an desegina izan zen) eta gaur egungoa, 1982an eraikia, amaiurtarren, Baztango Udalaren eta lau herrialdeetako Diputazioen laguntzarekin eraiki zela oroitarazi zuen. Alderdi politiko eta elkartetako ordezkariak ere ez ziren falta izan: Virginia Aleman alkatea eta zenbait zinegotzi, Eusko Jaurlaritzako Miren Azkarate, EAko Maiorga Ramirez, NaBaiko Koldo Amezketa, Aranzadi Elkarteke Juantxo Agirre, Pedro M^a Esarte historialari elizondarra... Guztiek gazteluaren errestitoa ikusteko aukera izan zuten. Aranzadi elkarte, Udalbideren bidez, eta Baztango Udala eta amaiurtarren laguntzaz, azken bi udatan lanean ari da, historiaren pasarte bat iraganean ez gelditzeko.

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

POTTOKI

Baztanberrri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenerdik
larunbatara:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatu

Tfnoa: 948 581 468
Mug: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

URDAZUBI

Kantu Zaharren Eguna azaroaren 24an eginen da Dantxarineako Lugarana jatetxean

Egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek

ttipi-ttapa

Aitzineko urteetako arrakasta ikusita, Kantu Zaharren Eguna eginen da heldu den azaroaren 24an Dantxarriean, Benta Peion, Lugarana jatetxean. Duela bi urte Elizondoko Lur dantzalekuan egin zen, eta joan den urtean Lugarana jatetxean. Aurtengo ere hala erabaki dute antolatzaileek. Kantua euskal kulturaren zati garrantzitsua eta oraindik hagitza zabaldua den ohitura dela iritzita, Angel Mariezkurrena Sunbillan bizi den eratsundarrak egun osoko egitaraua antolatzen ibili da burubelarri. 14:00ak aldera bildu eta bazkaria eginen da. Bazkalondan, berriz, mahainguru kantatzeko ohitura galdu ez dadin, kan-



ARTXIBOA

Orain dela bi urte Elizondoko Lur dantzalekuan egindako Kantu Zaharren Eguna arrakasta handia izan zuen. Tartean aurpegi ezagun andana ikusi ahal izan genituen; argazkian, bertzeak bertze, Pantxoa eta Peio ageri dira, mahainguruan kantari

tu zaharrekin hasiko dira, eta 20:00etan berrendu-afaria eginen da. Egun horretarako pro-

pio kantu zaharrekin egindako liburuxkak ere banatuko dira, kantua ezagutu ala ez guztiek

kantatzeko aukera izan dezaten. Liburuak dohainik banatuko dira hurbildutakoen artean bai-

na bakoitzak bere borondatea utzi ahal izanen du.

Urriaren 22az gozotik txartelak salgai daude, eta lehenbailehen eskuratzea aholkatu du antolatzaileak. Aipatutako jatetxean 350 bat laguntzako lekua egonen da bazkaltzeko. 50 euro ordaindu behar dute parte hartu nahi duten guztiek, eta prezio horretan bazkaria, bazkalondoko kantu giroa eta afari-berdendua sartuak daude. Autobusak ere paratuko dira, 10 eurotan. Txartelak Dantxarineako Benta Peio harategian (948 599400), Sunbillako kanpinean (948 450540) eta Elizondoko Antxitonea trinketean (948 581807) daude salgai.

Haur jaioberrientzako osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
